

PROBLEMAK 5

- Jonek berrogeita hamazazpi zentimo ditu sakela batean, eta hogeita hamazortzi, beste batean. Zenbat diru du guztira?

zentimo du guztira

- Aparkaleku batera 165 auto sartu ziren goizean, eta 149, arratsaldean. Zenbat auto sartu ziren guztira aparkalekura?

auto sartu ziren aparkalekura

- Julene 235 orrialdeko liburu bat irakurtzen ari da. 37 orrialde irakurrita ditu jada. Zenbat orrialde falta zaizkio liburua amaitzeko?

orrialde falta zaizkio liburua bukatzeko.

- Bidaia bat egiteko, 350 lagunek eman behar dute izena, gutxienez. Baina 195 soilik daude zerrendan. Beste zenbat lagunek eman behar dute izena, bidaia egiteko?

lagunek eman behar dute izena.

- Bilera batean 315 lagun elkartuko dira. Hasi baino lehen, 125 gizon eta 98 emakume daude. Zenbat lagun falta dira?

lagun falta dira.